

ERABAKIA, 2019ko azaroaren 11koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketako merezimenduak baloratuko dituen epaimahaiko kideak izendatzeko dena. Aipatutako lehiaketarako deia 2019ko ekainaren 25eko Erabakiaren bidez egin zen.

Gerentearen 2019ko ekainaren 25eko Erabakiaren bidez deia egin zen erabaki horren I. eranskinean agertzen diren lanpostu hutsak betetzeko, bai eta lanpostu horiek esleitu ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko ere.

Hirugarren oinarriak dioen moduan, epaimahai bakarra egongo da eta kideen kopuru bakoitia izango du, eta gutxienez hiru. Haietako bat epaimahaiko burua izango da eta bestea, idazkaria.

Epaimahaiko kide guztiak karrerako funtzionario izan beharko dira eta lehiaketako lanpostuak betetzeko eskatzen den titulazio talde bereko edo goragoko kidego edo eskalakoak.

Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua orekatua izan beharko da, behar bezala arrazoitutako kasuetan izan ezik.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Izendatzea ondoren aipatzen diren pertsonak UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioen lekualdaketa lehiaketako epaimahaiko kide:

	Titularra	Ordezkoa
Epaimahaiko burua	Miren Bergaretxe Zulueta	Edurne Intxaurbe Arrizabalaga
Epaimahaiki dea	Marian Nuñez Saiz	Alberto Zabala Bengoia
Idazkaria	Iñigo Isasi Urdangarín	Ana San Martín Azofra

Bigarrena.- Argiratzea erabaki hau ondoko helbideetako iragarki oholetan:

Intranet: "Langileen Ataria".

Internet: <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/barne-deialdiak>

Leioan, 2019ko azaroaren 11n

Errektoreak eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA)


 Miren Lorea Bilbao Arteche
 UPV/EHUko gerentea

